

BESTELAKO XEDAPENAK

LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILA

6038

AGINDUA, 2021eko azaroaren 3koa, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuarena, zeinaren bidez baimendu egiten baita, Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 80.4 artikuluan eta hirigintzako estandarrei buruzko uztailaren 3ko 123/2012 Dekretuak 15. artikuluan aurreikusitako prozeduraren arabera, babes publikoko etxebizitzaren gutxienerako estandarrak oro har betetzea, etxebizitza transferentziak eginez Iruña Okako hiri Antolamendurako Plan Orokorren baitan.

Aztertu da Iruña Okako Udalak egindako baimen-eskaera, udalerriko hainbat eremutan babes publikoko bizitegi erabilerako hirigintza eraikigarritasunari buruzko legezko aurreikuspena konpentsatzekoa. Izan ere, zenbait eremutan murriztutako estandarra beste eremu zehatz batzuetan sartutakoarekin osatzen da.

GERTAKARIAK

Iruña Okako Udalak aurkeztutako eskabideari sarrera-erregistroa egin zitzaion 2021eko urriaren 28an. Horren bidez, Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 80.4 artikuluan aurreikusitako baimena eskatu zen, Hiri Antolamendurako Plan Orokorren baitan, babes publikoko etxebizitzaren estandarra transferitzeko hainbat eremuren artean.

Ezarritako prozedurarekin bat etorritik, Iruña Okako Hiri Antolamendurako Plan Orokorren espedienteak Euskal Herriko Lurralde Antolamendurako Batzordearen txostena jaso du 2021eko uztailaren 14an egindako 4/2021 zenbakiko bilkuran, behin betiko onartua izan aurretik.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.– Sail hau eskuduna da aztertzen den espedientea ebazteko, Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 80.4 artikuluan eta hirigintzako estandarrei buruzko uztailaren 3ko 123/2012 Dekretuaren 11.1 artikuluan xedatutakoari jarraituz.

2.– Aurkeztutako eskaerak babes publikoko etxebizitzetarako lurzoru estandarraren konpentsazioa planteatzen du udalerraren baitan.

3.– Organo honetara atxikitako zerbitzu teknikoek Udalak aurkeztu duen eskaria aztertu dute. Bizitegirako hiri-lurzoruan estandarrak babes publikoko araubide bati atxikitako etxebizitzentzat legeak ezarritako gutxienerakoa 22.033 m²t da. Babes sozialeko etxebizitzentzat, berriz, gutxienerakoa 13.837 m²t da; eta gainerakoa, 22.033 m²t-ra artekoa, etxebizitza tasatuentzat. Hiri Antolamendurako Plan Orokorren arabera, 13.945 m²t dira babes sozialeko etxebizitzentzat eta 6.789 m²t etxebizitza tasatuentzat.

Lurzoru urbanizagarri sektorizatuari dagokionez, ezarritako gutxienerako estandarrak 27.184 m²t dira babes publikoko araubide bati atxikitako etxebizitzaren eraikigarritasunerako. Babes sozialeko etxebizitzentzat, berriz, gutxienerakoa 19.935 m²t da, eta gainerakoa, 27.184 m²t-ra artekoa, etxebizitza tasatuentzat. Hiri Antolamendurako Plan Orokorrean, babes sozialeko etxebizitzaren eraikigarritasunerako, zehazki, 19.828 m²t-koa izatea aurreikusten da, eta 8.657 m²t etxebizitza tasatuen eraikigarritasunerako.

4.– 2/2006 Legearen 80.6 artikulua arabera, transferentzia hori baimentzeko, ezinbestekoa izango da transferentziaren xede diren eremuetako etxebizitza libreen arteko balioen diferentziarekiko proportzionala den babes publikoko etxebizitza-kopuru bat aldeztu aurretik edo aldi berean egikariturako dela bermatzea.

5.– Neurri hori ez da aplikatzen lehen formulazioko edo planeamendu orokorraren erabateko berrikuspen espedienteetan, hala baitago xedatuta hirigintzako estandarrei buruzko uztailaren 3ko 123/2012 Dekretuaren 14.4 artikuluan.

Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea eta hirigintzako estandarrei buruzko uztailaren 3ko 123/2012 Dekretua, baita Euskal Herriko Lurralde Antolaketa Batzordeak emandako aldeko txostena ere aztertuta,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearekin eta hirigintzako estandarrei buruzko uztailaren 3ko 123/2012 Dekretuarekin bat etorruta, aipatutako Legearen 80.4 artikuluan eta aipatutako Dekretuaren 15. artikuluan aurreikusitako transferentzia baimentzea, Iruña Okako Hiri Antolamendurako Plan Orokorrean.

Agindu honen eranskinean Iruña Oka udalerriko eremu bakoitzean babes sozialeko etxebizitza eta etxebizitza tasatuentzat dauden erreserbak.

Bigarrena.– Baimen hori emateko, Iruña Okako Hiri Antolamendurako Plan Orokorrean testuan espedientea bete izanaren justifikazioa erantsi beharko da, 2/2006 Legearen 80. artikulua eta 123/2012 Dekretuaren 15. artikulua arabera.

Hirugarrena.– Baimen hori aurreko ataletan ezarritako baldintzetan ematen da, eta ez du baliorik izango, baldin eta behin betiko onarpena beste baldintza batzuetan ematen bada, eta baldintza horien ondorioz babes publikoko etxebizitza gutxieneko estandarren betearazpenean inplikaturik dagoen eremuren bat (hartzaileak edo igorleak) aldatzen bada.

Laugarrena.– Iruña Okako Udalarari Agindu honen berri ematea.

Agindu hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio-bideari. Interesdunek administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar dezakete Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietako Salan, bi hilabeteko epean, agindu hau argitaratu edo, hala bada, gogokio, jakinarazi, eta hurrengo egunetik aurrera.

Halaber, nahi izanez gero eta administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri baino lehen, berraztertze errekurtsoa jar dakioko Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuari, hilabeteko epean, agindu hau argitaratu edo, hala badagokio, jakinarazi, eta hurrengo egunetik aurrera. Kasu horretan, ezin izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri, berraztertze errekurtsoa espresuki ebatzi edo horren ustezko gaitzespena gertatu arte.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko azaroaren 3a.

Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburua,
IGNACIO MARÍA ARRIOLA LÓPEZ.

2021eko azaroaren 30a, asteartea

ERANSKINA

Agindu honen eranskina, 2021eko azaroaren 3koa, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuarena, zeinaren bitartez baimendu egiten baita Iruña Okako hiri-antolamendurako plan orokorrean babes publikoko etxebizitzaren gutxieneko estandarrak oro har betetzea etxebizitzaren transferentziak eginez.

Bizitegitarako hiri-lurzorua	Proposatutako eraikigarritasuna				Gutxieneko estandarrak	
	E. libreak m ² sabai- azalera	BSE m ² sabai- azalera	E. Tasatua m ² sabai- azalera	Guztira m ² sabai- azalera	BSE m ² sabai- azalera	E. Tasatua m ² sabai- azalera
AOP-N1 La Razuela	2.701	901	901	4.503	901	901
AOP-N2 Milagros Gonzalez	1.216	406	406	2.028	406	406
AOP-N3 El Molino	3.426	0	522	3.948	716	716
AOP-N4 El Calero	0	2.623	1.065	3.688	676	676
AOP-N5 Langraniz Norte Su	6.274	10.015	3.895	20.184	768	768
AOP-N5 Langraniz Norte Snu *					8.675	3.155
AOP-N8 Bolen	451	0	0	451	90	90
AOP-M1 Montevite	860	0	0	860	172	172
AOP-V1 Villodas Oeste	3.494	0	0	3.494	630	630
AOP-V1 Villodas Oeste Snu *					189	69
AOP-V2 Terciario	3.072	0	0	3.072	614	614
Hiri-lurzorua guztira	21.494	13.945	6.789	42.228	13.837	8.196
Bizitegitarako lurzoru urbanizagarria	E. libreak m ² sabai- azalera	BSE m ² sabai- azalera	E. Tasatua m ² sabai- azalera	Guztira m ² sabai- azalera	BSE m ² sabai- azalera	E. Tasatua m ² sabai- azalera
AOP-N6 El Torco	5.976	2.490	2.489	10.955	6.004	2.183
AOP-N7 Escuelas	1.824	17.338	6.168	25.329	13.931	5.066
Lurzoru urbanizagarria guztira	7.800	19.828	8.657	36.284	19.935	7.249
Guztira	29.293	33.773	15.446	78.512	33.772	15.445
		49.219			49.217	